



2012/03/2ko prentsa-oharra

Etxebizitza beharrei eta eskariei buruzko inkesta, 2010

EAEko 18 urtetik 44ra bitarteko biztanleen % 13,9k lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dauka

Jabeen arabera, 81.000 etxebizitza birgaitu beharrean daude, hau da, lehen etxebizitzaren % 9,7

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak kudeatzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza beharrei eta eskariei buruzko 2010eko inkestaren arabera, euskal familien % 6,7k etxebizitzaz aldatzeko beharra dauka –56.400 inguruk–; eta hamarretik ia batek (% 9,7k) adierazi du bere etxebizitzak 3.000 eurotik gorako birgaitze-lanen bat behar duela elementu propioetan.

18 urtetik 44 urtera bitarteko pertsonen kolektiboak lehenengo etxebizitza eskuratzeko, 97.800 etxebizitza behar izango ziren 2010ean Euskal Autonomia Erkidego osoa hartuta, hau da, aurreko urtean baino % 11,6 gutxiago. Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra zenbatek duten kalkulatzeko baldintza gisa diru-sarrera propioak izatea jarri da.

Bizkaian, 2009tik 2010era lehen etxebizitzaren eskaria % 18,5 jaitsi da; eta Gipuzkoan, %13,4. Araban aldiz, igo egin da, % 32,9.

Diru-sarrerak dituzten 18 eta 44 urte bitarteko bizkaitarrek 54.200 etxebizitza eskatu dituzte 2010ean –2009an baino 12.300 gutxiago–; gipuzkoarrek, 28.400 –4.300 gutxiago– eta lehenengo etxebizitza behar duten arabarrak 15.200 ziren 2010ean, 2009an baino 3.800 gehiago.

Lehenengo etxebizitzaren bila dabilten lau eskatzailetatik ia bik gurasoekiko emantzipazioa jarri dute arrazoi gisa –%73,5–, eta lautatik ia batek –%23,4– lehenengo etxebizitza, ezkontzeko edo bikotekidearekin bizitzeko bilatzen du.


Lehenengo etxebizitza eskatu dutenetatik % 23,2k alokairua aukeratu du

Lehenengo etxebizitza eskatu duten 18 urtetik 44 urtera bitarteko biztanleen erdiak, (% 51,6k), jabetzan eskuratu nahi du; % 23,2k nahiago du alokairua, eta % 25,2k ez du ez sistema bat, ez bestea aukeratu.

Eskatzaileen kolektiborik garrantzitsuena 25 urte eta 34 urte bitartekoa den arren, – %66,6–, ia % 19,8 dira 18 eta 24 urte bitartekoak.



Behar den 1. etxebizitzaren ezaugarriak eta eskatzaileen profila.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 2010. %



(*) % 100era iristeko falta denak "Ez daki/Ez du erantzun" multzokoak dira.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitza beharrei eta eskariei buruzko inkesta.

Etxebizitzaz aldatzeko beharrak bere horretan jarraitzen du $-0,4$ gutxiago– azken urtean; eta birgaitzea aldiz, % 43 jaitsi da.

Etxebizitza birgaitzeko beharra ikaragarri jaitsi da, 81.000 etxebizitza; % 9,7k bakarrik dauka pentsatuta 3.000 eurotik gorako aurrekontua duen konponketaren bat egitea etxebizitzaren elementu propioetan; 2009an baino % 75,5 familia gutxiagok.

Bestetik, etxebizitzaz aldatzeko beharra, 56.400 etxebizitzaren jabeek ikusten dute; 2009koen oso kopuru antzekoa $-0,4$ gutxiagok–.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

ETXEBIZITZEN BEHARREI ETA ESKARIARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN	2010	Aldakuntza 2009. urtearen aldean		
		GUZTIRA	%	
Euskal Autonomia Erkidegoa	Sartzea	97.800	-12.877	-11,6
	Aldatzea	56.397	-255	-0,5
	Birgaitzea	80.969	-61.130	-43,0
	Etxekoen unitateak	838.200	-3.301	-0,4
Araba	Sartzea	15.246	3.770	32,9
	Aldatzea	8.512	836	10,9
	Birgaitzea	12.785	4.611	56,4
	Etxekoen unitateak	123.600	285	0,2
Bizkaia	Sartzea	54.157	-12.261	-18,5
	Aldatzea	27.294	-10.642	-28,1
	Birgaitzea	40.942	-51.053	-55,5
	Etxekoen unitateak	446.400	-2.156	-0,5
Gipuzkoa	Sartzea	28.397	-4.386	-13,4
	Aldatzea	20.591	9.551	86,5
	Birgaitzea	27.242	-14.688	-35,0
	Etxekoen unitateak	268.200	-1.430	-0,5

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitza beharrei eta eskariei buruzko inkesta.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Organo Estatistikoa
Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.